




5. Irabazi iturriak

ReStudy enpresaren **diru sarrerak ordainketa bakarreko diru sarreretan oinarrituko** dira, aktibo bat saltzetik hain zuzen ere. Ekoiztutako 5 produktuak **prezio finko** batean salduko dira, gure web orrialdean zehaztuko direnak.

- Birziklatutako kartoizko eta plastikozko **boligrafoak**, lau koloretakoak.
- Ikasleek botatako paper zaharrez osatutako **paper** birziklatuetako 200 eta 500 orritako **paketeak**.
- **Urteko agendak**, aurreko urteetan bildutako paperez sortutakoak.
- Kartoizko **karpeta** handiak, orri asko eramateko diseinatutakoak.
- Plastikozko botilaz egindako fibraz osatutako **estutxeak**, bi koloretan.



Enpresak **pentamolde ekologikoa** du eta **jasangarritasuna** du oinarri. Beraz, **ezaugarrien araberako prezioa** izango da, **material ekologikoekin** produzitzen dugunez eta **tokiko lehengai**ez baliatzen garenez guk eskaintzen ditugun produktuak **garestiagoak** izango dira **merkatuaren prezioekin konparatuta**, betiere prezioa **ahalik eta eskuragarriena izaten saiatuz**. Gainera, gure **bezero potentzialek deskontu** bat jasoko dute, haien koaderno eta eskola material zaharra lehengai gisa erabiltzen baitugu.


Jarraian agertzen den taulan konparaketa hori ikus dezakegu eta ondorio bezala agertzen da merkaturan **ekologikoa diren ondasunekiko** nahiko **prezio merkeak** eskeintzen ditugula.

	Ez ekologikoa	Ekologikoa	Gure prezioa	Ikasleentzat	Ekologikoarekiko
Koadernoak	3,99€	8,95€	7€	6,3€	↓%21,79
Karpetak	0,90€	1,50€	1,20€	1,08€	↓%20
Folioak	7,50€	12€	8,35€	7,51€	↓%30,42
Estutxeak	11€	14,75€	12,5€	11,25€	↓%15,25
Boligrafoak	0,40€	1,50€	0,85€	0,77€	↓%43,33



Hurrengo taulan eta grafikoan aldiz produktu bakoitzak gure enpresarentzako suposatuko duen **sarreren portzentaia** eta **sarrera kantitateak** agertzen dira. Horrela jakin dezakegu salmenta kopuru estimazio horrekin eta gure enpresak eskeintzen dituen bost produktuekin **22.000 inguruko diru sarrerak** egongo direla.

Erosketen portzentaia



	Prezio orokorra	Erosketak (1400 unit.)	Ikasleen prezioa	Erosketak (2100 unit.)	Sarrerak guztira
Koadernoak	7€	560 unit	6,30€	840 unit	9.212,00€
Karpeta	1,20€	70 unit	1,08€	105 unit	197,40€
Folioak	8,35€	420 unit	7,51€	630 unit	8.238,30€
Estutxeak	12,50€	140 unit	11,25€	210 unit	4.112,50€
Boligrafoak	0,85€	210 unit	0,77€	315 unit	421,05€
			Sarrera totalak (ST)		<u>22.181,25€</u>

Kostu guztiak kontuan hartuta, **19.000€** beharko ditugu enpresa aurrera eramateko, **2.500€ iragarkiak** jartzeko, biltegiaren eta *standen* **alokairurako** eta **edukiontzien erosketarako**; eta **11.500€** lehen hilabeteko **ekoizpen kostuak** estaltzeko eta **5.000€ diruzaintzan** izateko. Diru kopuru hori guztia **lortzeko, crowdfunding** bat hasiko dugu, **Kick Starter appan**. Crowdfundingaren truke, gure proiektua finantzatzen dutenek beren **lehen erosketetan beherapen handiak** izango dituzte.

